



CAPOX- XELOX = XELODA (AHOKO KAPEZITABINA) (14 egun/21 egun) + OXALIPLATINO (21 egunean behin)	ALBO-ONDORIOAK	ZAINITZA OROKORRAK
OXALIPLATINO	• Goragaleak eta okadak. • Beherakoa. • Mukositisa (aftak/zauriak). • Azalaren esfoliazioa. Azazkalen alterazioa. • Neuropatia periferikoa (inurridurak). batez ere leku hotzak ukitzean.	• Edan 1 ½ - 2 litro likido (8 edalontzi) giro-tenperaturan. Likido hotzik ez. • Komuneko tangari bi aldiz ematea edo komunera lixiba pixka bat botatzea. • Azala zaintzea: - Hidratazioa eta eguzki-babesa. - Esku ahur eta oinzolen hidratazioa. - Gainazal hotzak edo metalezkoak zuzenean ukitzea saihestea. - Giro hotzetan babestea: eskularruak, bufanda. • Ahoko mukosa zaintzea: - Ahoko higieena, eskuila leunaz. - Alkoholik gabeko kolutorioak. - Kamamila-irakuzketak giro-tenperaturan. - Aftak badituzu: ✓ Bikarbonatodun irakuzketak. ✓ Elikagai bigun epelak. - Mastekatzeko edo irensteko zailtasuna baduzu: ✓ Kontsultatu. • Hesteetako patroiaaren asaldak edo alterazioak: - Dietaren bidez bideratzea. - Aldaketa handia bada: ✓ Kontsultatu. • Zainketak mieloiezabatzean: - 38 °C-tik gorako tenperatura baduzu: ✓ Joan larrialdietara botikarik hartu gabe. - Espazio itxiak saihestea. - Infekzio-prozesuak dituztenekin kontakturik ez izatea. - Eskueta higieena.

**OHIKO ALBO-ONDORIOAK:**

- MIELOEZABATZEA = defentsak gutxitzea, plaketak murriztea eta anemia (kontrol analitikoak)
- NEKEA/ASTENIA:
 - Atsedenaldiak gehitzea.
 - Jarduera jakin bati eustea: paseatzea, bizikleta, lanak egitea...

HARREMANETARAKO TELEFONOAK: 945007500 (Call Center, 8:00etatik 20:00etara) eta erizaindegiko 1. kontsulta (5. bulegoa, 14. boxaren aurrean) **945007381**.

Tratamendua osatzeko, **ahoko KAPEZITABINA** erabiltzen da. Albo-ondorio ohikoenak honako hauek dira:

- Beherakoa, goragaleak, okadak, estomatitisa (zauriak eztarrian eta ahoan) eta sabeleko mina.
- Larruazalaren erreakzioa esku eta oinetan (inurridura esku-ahurretan edo oin-zoletan, hozmintzea, mina, hantura edo gorritasuna).
- Nekea.
- Appetitua galtzea (anorexia).

Beherakoari aurre egiteko gomendioak:

- Elektrolitoak ematen dituzten likidoak hartzea ziurtatzea, hala nola edari isotonikoak, limoi-edari alkalinoa, aho-seruma...
- Dieta lehorgarria (arroza, patata-azenarioa, platanoa, sagarra, irasagarra...). Kendu laktosa, landare-zuntza, koipeak, hestebeteak, frijituak eta espeziak dituzten elikagaiak.
- Sukarra baduzu: kontaktatu baloratzeko.
- Beherako urtsua baduzu: loperamida (2 kapsulatako hasierako dosia). Ondoren, kapsula bat/4 orduan behin libratze bakoitzaren ondoren. Gehienez 8 kapsula eguneko.
- Hobera egiten ez baduzu, jarri harremanetan balorazioa egiteko.

OHARRAK, AHOLUAK: